

Epailletza Euskal Herrian

Aurreko alean, Zuzenbidearen mundua osatzen duten lanbide desberdinei eskainitako atal berri bati eman genion hasiera ELERIAN, abokatutzari buruzko azterketa bat eskainiz. Oraingo honetan, epailletza dugu hizpide. Lanbidearen ikuspegi orokor bat ematearekin batera, Euskal Herrian bizi duen egoeraren berri ematen digu jarraian lanbidea sakonetik ezagutzen duen emakume honek.



Garbiñe Biurrun Mancisidor, Justizia Auzitegi Nagusiko magistratua

“Epailleek, eskuetan hainbeste botere edukitzeko, pertsona normal orekatuak izan behar dute”

Garbiñe Biurrun Mancisidorrek Donostiako Zuzenbide Fakultatean egin zituen bere ikasketak, eta amaitu bezain laster hasi zen bertan irakasle gisara lanean. 1987an epaile izateko oposaketak gainditu eta Tolosako Epaitegian aritu zen bi urtez, orduan Donostiako Lan arloko Epaitegian sartu baitzen. 1998az geroztik, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Lan Aretoko magistratua da, eta kide deneko “Jueces para la Democracia” taldeko bozeramaile ere izan zen.

1.

Zertan datza epaile baten eginbeharra?

Epaile baten zeregina batez ere da berari zuzentzen zaizkion gatazkei irtenbidea ematea; hau da, erabakitzea gatazka batean nork daukan edo legeak nori ematen dion arrazoia.

Kontutan hartu behar da gatazka hori era askotakoa izan daitekeela, eta horren arabera

gure lana ere oso desberdina izan daitekeela. Ez dira berdinak gatazka zibil bat (adibidez, mailegu baten ondorioz batek beste bati dirua zor diola-eta sortzen den eztabaida erabakitzea) edo hiritarren eta Administrazioaren artekoak, edo lan munduan sortzen direnak (batik bat enpresari eta langileen artean, eta abar). Beraz, ardatz asko sortzen dira lan honetan, baina funtsezko lana hori da: gatazkek legearen arabera konpontzea.

2.

Ikasketen aldetik, zer egin behar da epaile bilakatzeko?

Lehenik, Zuzenbide ikasketak burutu behar dira, eta gero oposaketa bereziak egin. Beno, epaile bilakatzeko bi era desberdin daudela esan dezakegu: bata, ikasten eta ikasten (hau da normalean egiten dena: karrera bukatu eta gero oposaketak prestatu; ikasi eta ikasi eta gero epaimahai baten aurrean azterketa bat egin eta gainditu), eta beste era modernoago bat da Zuzenbide ikasketak burutzea, lan juridiko bat egitea (bai irakasle gisa Fakultatean, bai abokatu bezala, aholkulari bezala...) eta urte batzuk igaro ondoren, nolabaiteko oposaketa murriztuak egiten dira profesional horientzat. Horrela, karrera judizialean beste ikuspegi bat sartzea lortzen da, profesionalena; nolabait beste aldean egon direnen ikuspegia.

3.

Epaile bilakatzeko bi bide daude (oposaketaz eta aurrez lanbide juridiko bat egikaritzuz). Kontsiderazio berdina al dute bietan?

Asko dira hirugarren eta laugarren txandak desprestigiatzen saiatu direnak, baina asko gara baita ere bultzatu eta defendatu ditugunok.

Epaileen mundu honek haize berrien premia zuen, eta, neurri batean, hortik etorri zaigu haize fresko hori. Garrantzitsua da Justizia administratzen dugunon artean Zuzenbidearen beste zenbait arlotan aritu direnak sartzea (abokatuak, irakasleak...), ikuspuntu berri bat eskaintzen dutelako, esperientzia desberdinak batzen direlako eta, normalean, mundua eta gizartea ondo ezagutzen dituztelako, hau, epaitzerakoan, ezinbestekoa baita.

Epailea izateko oposaketak buruz ikasitako gaiak errepikatuz gainditzea, nire iritziz ez da nahikoa. Buruz jakite horri meritua ematen diotenak eta mundua eta gizartea ondo ezagutzea ezinbestekotzat hartzen ez dutenak dira hirugarren eta laugarren txanden desprestigiatzaileak.

4.

Zein tasun behar dira epaile on bat izateko?

Nik uste dut ikasteko gaitasuna frogatutzat emango dugula; behin oposaketak gainditu

ondoren hori ez da gehiago frogatu behar. Alde batetik jakinmina edo kuriositate pixka bat eduki behar da azaltzen diren arazoan aurrean: gauzak nola eta zergatik gertatu diren jakin nahi izatea, eta abar. Jakinmina behar da baita ere gehiago ikasteko, eta sortzen diren lege berriak eta araudi berri osoa ezagutzeko.

Eta, batez ere, sen ona eduki behar da. Ingelesek esaten dute epaile ona izateko sen on asko izan behar duela pertsona batek, eta Zuzenbide pixka bat baldin badaki, hobeto. Baina sen onarekin bakarrik nahikoa izango litzateke. Hori oso garrantzitsua da. Eta gizartean bizitzen ari den errealitatea beti hartu behar da kontutan; hankak oso ondo kokatuta izan behar dira lurtean. Oso ondo ezagutu behar da inguruzko zaituen errealitatea, bai politikoa, bai ekonomikoa, eta abar.

5.

Zer da justizia?

Hori bai dela galdera zaila. Filosofo asko eta asko saiatu dira justizia zer den zehazten. Teoria asko eta asko daude, eta esaldi famatu asko ere bai. Baina justizia egitea da æbadakit gauza jakina esatera noalæ legea eta Konstituzioa aplikatzea; hau da, araudi osoa, baina beti askatasun publikoetan oinarritzko eskubideen ikuspegitik.

Askotan epaileok legea nolabait automatikoki aplikatzen dugu, pentsatu gabe arau horrek zein jarrera daukan Konstituzioarekiko, errespetagarria den edo ez; ez bakarrik formalki konstituzionala den ala ez, baizik eta azterketa sakonago bat egin beharko genuke: noraino interpretatu behar den lege bat kasu edo gatazka konkretu bati aplikatzeko, denbora guztian Konstituzioaren barruan ote dagoen eta gainera Konstituzioak jasotzen dituen eskubideak benetan sakontzen. Nik uste dut momentu honetan hori dela justizia.

Justizia momentukoa da. Naturan justizia naturala egoten da; naturak bere arau eta erregelak ditu funtzionatzeko, baina ez dut uste gizakien justizia naturala dagoenik. Gizakiok normalean arau batzuen bidez antolatzen gara eta arau horiek beti eskubide horien pean egon behar dute. Eskubide horiek errespetatuz eta sakonduz aplikatzen badugu araudia, orduan egingo dugu benetan justizia.

6.

Egiak aurpegi desberdinak izan ohi ditu. Nola jakin benetan sententziarik egokiena eman dela?

Egiak aurpegi asko izan ditzake, baina epaiketa baten ondoren, epailearentzat egiak aurpegi bakarra du: epaiketan bere ustez frogatua gelditu dena. Epaileak badaki beharbada berak jasotako egia hori ez dela errealitatean gertatutakoa izango, baina berak egia horri eman behar dio irtenbidea eta erabakia.

Eta nola jakin erabakirik egokiena ematen ari zarela? Hori ez dago jakiterik, baina benetan momentu batean epaileak pentsatzen du gauzak era batera gertatu direla. Gatazkan parte hartu duten alderdiek pentsa dezakete: "baina nola esan dezake hori epaileak? Hori ez zen horrela gertatu!". Hori guztia frogen arabera da. Prozesu horretan burutzen diren frogen arabera, egia bat ateratzen da, eta hori da gure egia, eta egia horri aplikatzen diogu legea. Beste kontu bat da frogak ez badira oso egokiak, edo gero frogatzen bada lekukoak gezurretan ibili direla, edo azaldutako agiriak ez direla zuzenak, edo beste agiri batzuk zeudela aurkeztu ez dituztenak, eta abar.

Baina guk prozesutik ateratako egiarekin funtzionatu behar dugu, eta egia hori lortzeko daude prozesua eta arau prozesalako, alderdiek nola defendatzen dituzten beren ideia eta eskaera, eta beren burua. Arau horiek errespetatuz egia bat sortzen da, nahiz eta errealitatekoa ez izan.

7.

Filmek erakusten dizkiguten epaiketen artean eta benetakoaren artean hainbesteko aldea al dago?

Bai, batez ere filmetan ikusten duguna Estatu Batuetako errealitatea delako. Beno, gainera ez dakit filmetan benetako errealitatea azaltzen den, zeren nik ez dut hango errealitate judiziala ezagutzen, baina behintzat guri filme horietan erakusten digutena errealitate bat da æhangoa, dirudienezæ eta horrek oso zerikusi txikia dauka gure errealitatearekin. Orain zertxobait hurbilago egon daiteke zinpekoen epaimahai sistema sartu delako, eta han sistema berdina erabiltzen da, baina teatralitate handia dago han.

Errealitatea oso desberdina da, askoz ere xumeagoa, baina nik uste dut hemen gero eta jende gehiagok daukala Justizia Administrazioarekin harremana. Zoritxarrez batzuek justizia penalararekin (bai delitu baten biktimak izan direlako, bai delitugileak direlako), eta besteetan beste asunto arruntagotan (lan harremanetan, adibidez, jende askok ditu enpresariarekin gatazka handiak nahiz txikiak), eta horrelako gatazka pila pila bat konpontzen dira epaitegietan.

Donostian urte betean, 1998an, 3.000 demanda inguru aurkeztu ziren; beraz, 3.000 pertsona inguruk izan du gatazka bat epaitegietan, eta orduan gero eta gehiago ezagutzen da errealitate judiziala, zuzenean gainera.

8.

Oposaketak gainditze soilak bermatzen al du justizia egiteko gaitasuna?

Esan bezala, sen ona behar da, eta Zuzenbidea jakitea ongi dago, noski. Baina alderantziz, nik esango nuke oposaketa tradizionalak æez beste bide berri horrekæ askotan zailtasunak jartzen dituela epaile onak bilatzeko.

Ez dut uste ona denik 3 edo 4 urte ikasten igarotea, egunero 10 bat orduz, etxetik atera gabe; ez zait egokia iruditzen zentzuzko pertsona bat bihurtzeko. Nik uste dut horregatik gertatzen direla gertatzen diren gauza bitxiak. Besterik da esatea epaile batek pentsatzen duela horrela edo hala, edo lan gehiago edo gutxiago egitea... baina batzuetan entzuten diren gauzak ez dira pertsona normalenak. Eta epaileen artean æuda honetan *El País*-en azaldutako artikulua bat dut gogoanæ ezgaien oso portzentaia handia dago, baina arrazoi mentalengatik batez ere. Hor sakondu egin beharko litzatekeela uste dut, eta ez dakit nola, baina gaitasun psikologikoa ere neurtu egin beharko litzateke, testen bidez-edo. Badakit oso arriskutsua dela, ideologikoki kontrolatzeko oso tresna onak dira test horiek, baina hor Parlamentuak, hiritar elkarteek, sindikatuak, partiduek eta mota guztietako erakundeek parte hartuz, epaileen perfil psikologiko normalizatu bat beharko genuke.

Asuntua ez da txantxetakoa, nahiko larria da. Langile asko egongo dira nahiko ideia bitxiekin, baina langile normalak ez dauka epaileak daukan boterea. Inork ez. Beraz, burutik zerbait soberan edo faltan izan eta boterea baldin badaukazu, kalte handia egin dezakezu. Eta kalte handia normalean egiten da botere hori norberaren fobiak edo filiak persegitzeko erabiliz, eta horregatik daukagu hondartzan *top-less* egiten ari zen neska atxilotu zuen epailea, eta horrelako gauzak. Horregatik, eskuetan hainbeste botere edukitzeko, pertsona normal orekatuak behar dira.

9.

Zer egin liteke jendeak justiziarekiko fedea berreskuratzeko?

Ez dakit. Ez dut uste gauza berezirik egin behar denik. Epaileok lan gehiago egin behar dugu. Atzerapenaren asuntua larria da, baina zenbait

jurisdikziotan ez da batere larria; nahiko ondo daude, atzerapenik gabe.

Beharbada jendeari gutxien gustatzen zaiona ez da erabakiari gehiago edo gutxiago itxarotea, baizik eta ikustea justiziak bi neurri desberdin erabiltzen dituela: honi legea era batera aplikatzen zaiola, eta besteari, beste klase batekoa delako, beste era batera. Nik uste dut jendeari esplikatu behar zaiola batzuetan gauzak benetan gaizki egiten direla, eta arrazoa dutela gaizki pentsatzen, baina beste batzuetan gauzak horrela direla eta legeak agintzen duela. Batzuetan legea aldatu egin behar da, baina hori legegilearen asuntua da, ez epaileena.

Beraz, ez dut uste gauza handirik behar denik, baina bai behintzat gauza batzuk aldatu, lehen aipatu dudana adibidez: bermatzea epaileak pertsona normalak izango direla, atzerapen handirik ez dela egongo, eta justizia benetan egingo dela; hau da, legea benetan denei berdin aplikatuko zaiela. Uste dut hori dela jendeak nahi duena.

10.

Nola ikusten duzu Justizia Administrazioaren euskalduntze prozesua?

Egia ukaezina da Justizia Administrazioa euskalduntze prozesuan atzeratuena dela, Administrazio honek, gaur egun, behar den bezala euskaraz erantzuteko gaitasunik ez duelako.

Errealitate honetatik abiatuz, egia da, baita ere, Administrazio honekiko eskuduntza duten beste Administrazio eta Erakundeek (Eusko Jaurlaritza eta Botere Judizialeko Kontseilu Nagusia) serioski hartu dutela euskalduntze prozesuaren beharra.

Hala ere, zailtasunak ere ikusten ditut, batez ere zalantzan jarri behar delako zenbaiten borondatea euskararekiko æborondateaz mintzatzen naiz, euskara arloan inori ez baitzaio inolako betebeharririk inposatzenæ. Borondate ezaren baieztapen hau frogatzeko, bi adibide garbi besterik ez: itzultzaileen bidez epaileen eta hiritarren arteko harremanak normalduz eta behin betikotzat hartzea; eta epaile euskaldunen "kalitatea" zalantzan jartzea (biak komunikabideetan azaldu dira).

11.

Bilboko dekanoa den Juan Pablo Gonzalezen esanetan, Euskal Autonomia Erkidegoan Espainiako beste lekuetan baino mugikortasun handiagoa dago. Zer iritzi duzu zuk?

Justizia sailburuak, Intxaurraga jaunak, argi asko utzi zuen Gonzalez jaunak esandakoa errealitatearekin bat ez zetorrela. Euskal Herrian gertatzen den epaileen mugikortasuna, beste lekuetan gertatzen denaren antzekoa da. Beraz, momentu honetan ezin zaio mugikortasun hori egoera politikoari leporatu. Are gutxiago Euskal Herrian bizi den aniztasun politikoari edo hizkuntza bikoiztasunari, Gonzalez jaunaren hitzetatik ondorioztatzen zen bezala.

12.

Zer aholkatuko zenieke epaile izateko asmotan dabiltzan ikasleei?

Karrera lasai egin dezatela; hau da, ikasi bai, baina dibertitu eta ondo pasatu ere bai. Gero eta gehiago ari gara hemen lehiakortasuna ikusten, eta hori ondo dago jendeak gehiago ikasten duelako, baina nolabait galtzen ari da unibertsitatean bizi zen giroa, oso desberdina zen, eta hori galtzea ez da ona. Beraz, karrerako ikasketak tinko baina lasai egitea, eta nahiko ondo pasatzea, oso urte onak dira-eta.

Gero, oposaketak lehenbailehen hastea; posible badute, karrera bukatu eta denbora pixka bat lasai edo beste lanen batean aritzea, baina hori oso zaila izaten da, beraz, errealistak izan behar dugu. Nik uste dut onena izango litzatekeela oposaketetan hastea, baina ez hamar ordu egunero etxetik atera gabe; horrekin ez dugu ezer lortzen: oposaketak gaindituko ditugu baina beharbada burua galduko dugu.

Behin gure bizitzako hiru, lau edo bost urte galduz gero, pertsona batek mendekua edo zerbait behar du. Hainbeste denbora galdua bat-batean bere burua epaile ikusita, ez da posible epaile ona izatea, hainbeste denbora sufrirituz. Horrela hartzen bada, hori sufrimendua da, eta sufritzea ez da ona burua bere tokian mantentzeko. Beraz, oposaketak egin, baina lasai eta errealitatean mugituz, eta gizartearen errealitatean murgilduta bizi.

Elkarrizketa: Koro Garmendia